



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) • CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2025eko irailaren 12an, goizeko zortzietan, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura berezia eta premiazkoa egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak: Arnesto Berruezo, Alfonso - Barberena Echart, Beñat - Merino Iriarte, Juan Esteban - Ubau Galarza, Nere.

Aldez aurretik, bilkura berezi eta premiazko honen deialdia egitearen zergatia azaldu da. Izan ere, larreak kudeatzeko proposamena atzo, irailak 11, iritsi zen, eta beharrezkoa da onartzea, eta betetzeko eta betearazteko konpromisoa hartzea. Akordioa 2025-2026 kanpainarako dirulaguntza eskaerarekin batera aurkeztu behar da. Aurkezteko epea irailaren 17an amaituko da, eta egun horretan ikastaro bat dago, idazkaritzako langileentzat derrigorrezkoa dena. Bilkura arrunterako deialdia egin arte itxaronez gero, epea agor daitekeenez eta, hortaz, ustekabeko arrazoiengatik epez kanpo geratzeko arriskua egon litekeenez, deialdia gaurko egitea erabaki da.

Osoko Bilkurak deialdia premiazkoa dela berretsi du, eta gai-zerrenda aztertzeari ekin zaio.

BAKARRA.- LARREEN KUDEAKETA IRAUNKORREKO PLANA ONARTZEA: 2026-2030 ALDIA. BETETZEKO KONPROMISOA.

Aezkoako Mendietako larreen kudeaketa jasangarrirako proposamena aztertu ondoren, Ana Marinas Murillo teknikariak 2026-2030 aldirako idatzi du. Plan horretan sartzen dira larreen erabilera iraunkorraren plangintza, jarduera eremuak, 2026-2030 bitarteko kanpainetarako kudeaketa plana eta gauzatu beharreko inbertsioak eta hobekuntzak, dagokion aurrekontu banakapenarekin. Aezkoako Batzarre Nagusiaren osoko bilkurak erabaki du Aezkoako Mendietako larreen kudeaketa jasangarrirako plana onartzea 2026-2030 aldirako, eta konpromisoa hartu du plan hori betetzeko eta betearazteko, 10.2-e oinarrian aurreikusitakoaren arabera, 2025-2026 kanpainarako laguntzen deialdian, Nafarroako larre menditarren kudeaketa jasangarrirako, 6881.1 esku-hartzearen barruan.

Era berean, deialdi honen barruan 2025-2026 kanpainari dagokion dirulaguntza eskatzea erabaki da, urte horretan aurreikusitako jardueretarako. Kudeaketa Iraunkorreko Plana akta honi erantsita gelditu da.

Eta aztertzeko gai gehiago agertu ez baita, bilkura bukatutzat eman da, goian adierazitako eguneko goizeko zortzia eta hogeita hamar minutuak zirela. Esandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.